

## GIG 54

## SASIOLAKO MEANDROA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,50**BALIAGARRITASUN-MAILA: **2,50**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Deba ibaiak ferra-formako meandro bat egiten du Sasiola auzoan. Ibaia NE norabidean dator, faila baten ibilbideari jarraituz, eta kareharrizko horma gogorrenekin talka egiten duen lekuetan pinakuluak (GIG 43) saihesten dituenez, meandro estu samar bat sortzen da.

Kontuan izanda pinakuluek oinarrian duten higadura-maila 150 metroko altueran dagoela eta gaur egun ibilgua metro gutxi batzuetara baino ez dagoela, ondorioa garbia da: 100 metro baino gehiagoko ebakidura egin du ibaiak kareharrian.

Sasiolako meandroan bikain ikusten da higaduraren ekintzaz zer-nolako dinamika sedimentarioa izaten den horrelako formazioetan. Meandroaren barrualdean terraza bat ageri da, garbi, eta litekeena da terraza hori etenka bada ere Debako estuarioko (GIG 42) sedimentuz osatua izatea. Kanpoaldean higatuak izan dira, eta barrualdean, aldiz, sedimentuak metatzen jarraitzen du.

## NOLA BERTARATU

N-634 errepidea hartuta, Sasiola auzoaren inguruan.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Meandroa osorik ikusteko begiratoki egokirik ez da aurkitu. N-634 errepidean zehar ikustea da onena.



Sasiolako meandroa, airetik ikusita.



## UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 551504 m / Y= 4791965 m / Alt.= 1 m